

Arhantsusi

Aurkibidea

Udalerria: Arhantsusi

Sarrera



Nafarroa Behereko udalerria da, eta Oztibarre eskualdean dago kokaturik, Iholdiko kantonamenduan. Zuberoako mugan dago Arhantsusi, eta Nafarroa Beherean herri hauek ditu mugakide: iparraldetik, Uhartehiri; ipar-mendebaldetik Izura-Azme; eta, hegoaldetik Pagola eta Jutsi. Biduze ibaia igarotzen da udalerritik. Bertako ekonomia laborantzan dago oinarriturik: zerealak eta ardi-aziendak.

- **Biztanleak:** 73
- **Euskaldunak:** %72,84

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Alexandre Etcheberry (1931-2018)



Arhantsusi Larrondoan sortu zen. Aita bertakoa zen, eta ama aldiz Lartzabale Zibitzekoa zuen, eta biak laborari zituen. Sei senideetarik bigarrena: gehiena neska zen, bortz mutikoak ondotik jin ziren. Aitamak bezala, Alexandre ere laboraria izana da, Larrondoan, bainan badu gainera bertze zaletasunik: bertsolaritza. Hamazazpi urtetan hasi zen, eta geroztik Jutsiko Pierre Mercapide eta biak plazaz plaza, ogi-jotzez ogi-jotze ibiliak dirak, Oztibarren gaindi batez ere. Xalbador eta Mattinekin ere ibilia da bikotea. Ttipitik ezagutu du euskararen zapalketa: eskolan *buxeta* zuten, zigorra euskaraz mintzatzeagatik. Apezen artean urte bat Mauleko kolegioan egin zuen, zertifikata ateratzeko asmoz, bainan, urtea gogorregia izan zenez, ikasketak bertan behera utzi eta etxean lanean hasi zen laborantzian. Berantago, Jutsiko Véronique Bidartekin ezkondu, eta lau seme-alaba izan zituzten (etxeko tradizioari fidel, gehiena neska eta ondoko guziak mutikoak). Bigarren Mundu Gerlaz (1939-1945) ere oroitzapenak kontatu dizkigu, zehaztasunez.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com